

## Igorreko Nazinoarteko Ziklo-krosa hilaren 8an

Olabarriko zirkuituak ia 600 ziklo-kroslari hartuko ditu abenduaren 7-8ko astegoienean. Abenduaren 8an, XLVI. Igorreko Nazinoarteko Ziklo-krosa jokatu da, nazinoarteko txirrindulari ezagunak ekarriko dituena. Bertan egongo dira, MBko munduko txapeldunorde izandako Noemie Garnier edo Marcel Meisen Alemaniako txapelduna. Bezperako arrastian, Txiki Kopako lasterketa bat jokatu da, eta bertan, Bizkaiko ziklismo eskolako umeek disfrutatu dabe zirkuituagaz. **Erdiko orrialdeak**



# Aurreko domekan eta egunean bertan, hilak 3, ospatuko da Euskerearen Eguna

Horretarako herrietako udalek eta alkarteek, aisialdi eta kultura jarduerak antolatu ditue, euskerearen erabilera bultzatzeko asmoz.

**H**asita dagoz ospakizun eta aldarriak. Domekea, abenduaren 1a, izan da ospakizun gehien jaso dituan eguna. Arantzazun, Artean eta Zeberion, esate baterako, egon zan euskerea zelan ospatu eta aldarrikatu.

Baina martitzenean, hilak 3, da Euskerearen Nazinoarteko Eguna eta eskualdeko ia herri guztietan egongo dira jaialdiak, edade guztietako jentek ondo pasau dagian euskeraz. Magia ikuskizunak egongo dira jaialdiotan.

Zeanurik, antzerkiaren aldeko apustua egin dau eta Patxo Telleriak *Txizatoki bat eszenalekuan* antzeztuko dau eta Mikel Martinezek *Hamalau* izeneko bakarrizketea taularatuko dau Kultur Etxean. **5. orrialdea**

**ABENDUAK 3**  
Euskararen Nazioarteko Eguna 2024

**EUSKARAK**

**365**

**EGUN**

**ABENDUAK 3**  
Euskararen Nazioarteko Eguna 2024

Alarma gorria sakatu dugu erreakzio bat eragiteko, larrialditik indarraldira igarotzeko. Eta baditugu jauzi egin dezakegula sinesteko arrazoiak: euskeraz ere bizi ahal izango den herria herri hobea izango dela; justuagoa, berdinzaleagoa, kohesionatuagoa, eta zionontsuagoa, finean. Nor bere alorrean, trantsizioa aktibatzen eragile izan daiteke. **Euskarak mugimendua behar du, eta gu mugitzera goaz.**



### ARRATIA

## 33 enpresek berretsi dabe euren euskereagazko konpromisoa

Zemendiaren 22an izan izan konpromisoa berresteko eusGara ekitaldia. Igazko enpresei, lau gehiago batu jakiez aurten, handituten doan komunitadea sendotuz. eusGara zerbitzua Errota fundazioak sortu eban 2017an eta berak kudeatzen dau finantzazio publikoagaz. **8. orrialdea**



**LAN PUBLIKOAK**  
**UR ETA SANEAMENTU SAREAK**  
**BASERRI ETA BASOKO BIDEAK**  
**PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK**

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)  
 eraiketak@construccioneseekin.com

### IGORRE

## 2025eko Udal kontuak onartu ditu Igorreko Udalak

Udalak 5,9 milioi euroko aurrekontua onartu dau, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzioagaz. Kontuok herritarren "entzute aktiboagaz" eta oposizioaren ekarpen gehienak jasota egin dirala azaldu dau alkateak. **6. orrialdea**

**EKINEAN PSIKOLOGIA ZENTROA**

**NERABEZAROKO ERRONKAK GAINDITZEKO LAGUNTZEA**

**LAGUNTZEA NOZ ESKATU:**

- EMOZINOAK KUDEATZEKO
- ZAILTASUNAK: ansiedadea, autoestimua...
- PRESINO AKADEMIKOA
- LAGUNAKAZ ARAZOAK
- FAMILIA ARAZOAK
- JARRERA EDO JOKABIDE ARRISKUTSUAK

Nerabe eta familiagaz eskuz esku beharrean

Lehendakari Agirre 4, Igorre - 652 702 650  
 maitealdekoa@gmail.com ekineanpsikologiazentrua

### UBIDE

## Ubidek onartu ditu 2025eko Udal aurrekontuak

Guztira 357.374 kudeatu beharko ditu Udalak, 2024an baino 9.000 euro gehiago. Aurten be, Hiri Antolamentu Plan Orokorre-rako diru partidea egongo da. Baita jarduera soziokultural eta jaietarako, azterketak eta lanak egiteko, kaleetako garbiketarako eta Arratiko Udalen Mankomunitaterako. **8. orrialdea**







## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

## Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

### Hitanoagaz hasteko aholkuak (LVII). Kale berbakunea sustatu guran

#### IRUÑA-VELEIA

- Hi! Akordetan **haz** Iruña-Veleiagaz?
- Enok** gomutauko ba?
- Bitik**, hor zeozer ostenduten **jabizek**.
- Diputazinoak **etxok** karbono 14ko probarik egin!
- Eta horrek bakarrik frogatu lei piezak noz idatziak diran.
- Gauza arraroak **jazak** bai!
- Eskabadorak sartu **jauriazan** aztarnategian froga guztiak desagertu arazoteko...
- Ba epaiketean gehienak benetakoak **zoazela** urten **zoan** eta hori **eztok** inon urten!
- Ea behingoz egia urtetan **bok!**

## ERETXIA

### Maite doguz maite gure bazterrak... baita gure kaleetako komertzio txikiak be!

**B**arriro be gertatu da. Bezera gitxiago, diru-sarrera gitxiago, gastu gehiago, ezinegon handiagoa... beste denda bat gitxiago.

Inguruan atea ixten daberen hainbat sektoretako komertzio txikien kopurua handituz doa. Hamarkada bat behintzat pasau da "merkataritza txikia krisian dago" esaldia entzun genduanetik. Al-daketarik nabaritu dozue? Geuk bai.

Gero eta gehiago erosi gura dogu gero eta diru gitxiagoren truke, kate luze honen atzean zer dagoan bardin jakula emoten dau... Egia da bizitzan guztiz koherentea izatea ezinezkoa dala, baina ez dau merezidu inguruan daukaguna babesteko ahalegina egitea?

Herriak bizirik mantenduteko herriko dendek eta tabernek daukien garrantzia ukazina da azken finean bizitasuna sortzean dabalako. Imaginetan dozue Dima, Igorre edo Arratiako edozein herri, taberna edo denda barik?

Gure herrietako komertzio txikiak babesteak bertako ekonomia bultzatzen dau. Dendak eta tabernak zabalik mantenduteak bertako jentearantzako lanpostuak sortu arazoten ditu, eta beraz, aberastasuna eskualdean geratzen da, ez doa betiko eskuetara: supermerkadu handiak, multinazionalak...

Ez dogu ahaztu behar Arratiako paisaia, kultura eta ohiturak baserriari lotuta dagozala: artzain barik ez daukagu Arrabarik, ganadu barik ez daukagu kalidade oneko okelarik, erle barik ez dago hianbeste gustetan jakun ezta, okinik barik ez daukagu mokotsik... Eta honegaz lotuta,



ZAZPI HAIZETARA  
Euskal ekoizleen aldeko ekimena

ez dira politikak herri eta auzoetan antolatuten diran azokak? Lehen sektorearentzat erakusleho parebakoa izateaz gainera, a zer astindu ederra emoten deutsien herriei eta ze garrantzitsuak diran hain ahaztuta daukagun sektore honentzat. Bide batez, gora gure baserriarrak eta artisauak!

Ez geunke amaitu gura km0 produktuak aitatu barik, azken finean, honeek konsumidu ezker, ingurumena zaindu egiten dogu. Produktua ekoizten dan lekutik gugana zenbat eta distantzia txikiagoa izan, gero eta kilometro gitxiago behar dira garraioan, plastikoko gitxiago erabilten da... Beraz, ingurumen-inpaktua txikiagoa da. Zeinek kutsatzen dau gehiago: Murtzian ekoiztutako patatak ala Arabako lautadakoak? Areatzan egindako zeramikazko katiluak ala Suedian egindakoak?

Maite dogu maite, denda batera sartu eta "egun on", "zelan zagoz?", "eskerrik asko"... berbak euskeraz entzutea. Maite dogu maite, gure auzokideak eta lagunak izateaz gainera, hurreko dendari eta tabernariak be badiranak.

Zaindu daigun maite doguna. Egin apustua bertako komertzio txikiaren alde!



EUSKARAZKO IKUS-ENTZUNEZKOEN ALDEKO EKIMENA



## LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

## Algoritmoa?

**S**are sozialen erabileratik ohiko bihurtzen dabilan berbea da algoritmoa, pil-pilean dogun berbea, berba tekniko, neutrotasuna irudikatzen dauan horreetakoa. Baina komunikazioa ez da bape be neutroa eta bata edo bestea adierazoteko aukeratutako dogun berbea zehatza izaten da, karga edota konnotazio bereziren bat emon edo kentzeako erabili gura doguna.

Algoritmoak, helburu zehatz batera eroaten gaituan ekintza edota prozesu bilduma adierazoten dau. Metodoa da, ekintza sistema-prozedura, errepituz gero helmuga berberera eroaten gaituana. Ez dago algoritmoa bakar, prozesu beste algoritmo dagoz. Ez dau ezer berezirik azaltzen ez bada prozesu zehatz baten.

Ardaoa egiteko prozesu osoa, mahats zaintze, aukeratze, batze, zapaltze, beratze, ontze eta abar batzean dauana esaterako, algoritmoa da baina bitikultura

deitzean deitsagu. Ogia egitekoa be algoritmoa da baina ogi errezetea dala dinogu. Zer dala-ta orduan; sare sozialetako prozesu guztiei, -lagunak aukeratzekoak, informazioa jasotekoak, erosketak egitekoak, eta abar luzea- algoritmo deitzea? Horreek guztiek be euki badaukie izendapen zaharra; besteak beste, marketina, jente-arte kontrola, publizitatea, manipulazioa... baina neutroagoa da algoritmoaz berba egitea. Lar neutro eta lar simple interes eta helburu zehatz batzuen zerbizura jaso, antolatu eta bideratzen dan informazio tratamendu osoa izentatzeko.

Ez dakit nik! Gardentasun nahiz baimen barik, lortu, bilatu, bildu, aukeratu, antolatu, iragazi, egituratu eta erabilten dan informazio personalaren tratamendu osoa algoritmoa baino ez izatea, niri behintzat, susmagarria egiten jata.

## ZERTZEAN



MARTIN ORTEGA MURO

## Mudejar etxea Areatzan



## BEGI TXINDORRA

**P**edro eta Iñigo Sagarna anaiak antolatuta, 156 motorzale batu ziran zemendiaren 24an, Zeanuriko Enduro urtekerara, bere 35. edizioan.

Sorpresa bat izan eben aurten, Avilako batzuk be batu ziran eta motorraren festa honetara. Bizkaia osotik, Araba eta esandako moduan, beste leku batzuetatik etorritakoek be, Altunganetik urten, Urkiolan armosau eta handik Ubidera eta Ubidetik Zeanurirako ibilbidea egin eben. Antolakuntzea eta partaideak pozik agertu dira eta datoren urtekoa egiteko desiatzen.

Egon ziranen artean, urtero Dakar lasterketara joaten dan Gasteizko Fausto Mota be egon zan eta antolatzaileei jarraituteko esan eutsen.

Badirudi urte askoan jarraituko dauala Enduro taldea urteroko urtekerak egiten; urtean-urtean gehiago dira-ta. "Jarraitu egin behar dala, hau ezin dala galdu esaten deuskue etorten diranek" dino Pedro Sagarnak. "Gure loba Beñat Sagarnak, badaroz urte batzuk gugaz etorten. Orduan bihar-etzi baten nire anaiak eta nik ixten badogu, igual berak jarraituko dau".



**Gorosti**  
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com

**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91  
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

**agoa**  
hagin klinikak

Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologia

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Ikasgata Zerbitzuak 900  
R.P.S. 31/06



AREATZA

## Euskera plan barria egiteko batzar bi Areatzan

### Erredakzioa

Areatzan euskerearen kaleko eta etxeko erabilerearen jatsiereari aurre egiteko, euskerea sustatzeko plan estrategikoa egingo dabe eta horretarako diagnostikoa egiteko galdetegia zabaldu eben eta parte hartzeako saioak antolatu ditue hurrengo asteetan.

"Euskerea hizkuntza garrantzitsua da gurean eta holan izaten segidutea gura dogu. Gure bizi-moduan aldaketa handiak gertatu izan dira atzen urteotan, eta hurrengoetan be gertatuko dira: hartu-emon ereduak, teknologia ba-

riak, biztanleen mobimentuak... Aldaketa guzti horreek zuzenean eragiten deusie hizkuntzeari, eta, globalizautako mundu honetan, ezinbesteko izango jaku euskerearen aldeko hautua egitea" dinoe Udaletik. Erakundeok be badaukiela zer egina euskeraz egiteko aukerea zabaltzen eta bultzatzen eta erraztasunak emoten herritar eta eragileei adierazo dabe.

Plangintzearen estrategiak zehaztuteko eta ekintzak identifiketako herritarraz saio bi egingo dira udaletxean abenduaren 3 eta 17an, 19:00etan. Saioen ostean kopaua egingo da bertaratutakoentzat.



ARRATIA

## Hezkuntza publikoa indartzea eskatzeko kontzentrazioa egin eben Igorren

### Erredakzioa

LAB sindikatuak deituta, dozena bat herritan, tartean Igorren, mobilizazioak egin ziran zemendiaren 21ean, hezkuntza publikoa indartzeko eta inbersinoa handitzea eskatzeko.

Zemendiaren 8an abiatutako dinamikeagaz jarraituz, sistemearen ardatza hezkuntza publikoa izan daiten, inbersinoa handitzea aldarrikatzeko batu ziran EAeko uriburuetan eta hainbat eskualdetan; Donostian, Zumaiian, Oretetan, Eibarren, Bilbon, Barakaldon, Durangon, Gernikan, Igorren, Algortan,

Gasteizen eta Laudion, hain zuzen be. Guztira 400 personatik gora.

LAB sindikatuak, "azpiegiturak hobetu, baliabidez hornitu eta lan baldintzak hobetuko dituen akordioak" behar dirala dino eta horretarako, urtero aurrekontu-proiektuetan gitxieneko inbersinoa Barne Produktu Gordinaren %6koa izan beharko litzatekela aldarrikatzen dau.

Euskal Eskola Publiko Komunitarioa helburu izanda, hezkuntza komunitarietako langileak burrukan segiduko daua jakinarazo dau sindikatuak.



ARRATIA, ZEBERIO

## Aisialdi eta kultura jarduerak antolatu ditue udalek eta alkarteek euskerearen erabilerea bultzatzeko

Abenduaren 3an, Euskerearen Nazinoarteko Eguna ospatuten da eta horren harira Arratia eta Zeberioko udal eta alkarteek hainbat jarduera antolatu dabez euskerea aldarrikatu eta bere erabilerea bultzatzeko. Egunean bertan jarduerak egingo dira ia herri guztietan, baina aurretik be, abenduaren 1ean, domekan, batez be, euskereagazko loturea sendotzeko jarduera desbardinak egin dira.

### Erredakzioa

Holan, Arantzazun, abenduaren 1ean, euskerearen aldeko hormairudia margotu eben eta txapa eta banderola tailerra egin zan; eguerdian, euskerearen aldeko bizikleta martxa eta arrastian, *The Soccer Movie* pelikulea euskeraz ikusteko aukerea egin zan Kultur Gunean.

Areatzan lehenago hasi ziran euskerearen aldeko jarduerak. Zemendiaren 30ean izan zan *Manttalingo alaba* errezitaldi musikatua. Errezitaldia, helburu bi eta Nazinoarteko egun biren inguruko egitarauan egin zan. Andren kontrako biolentzia ezabatzeko egunaren programazioan bere gaiarengaitik, eta Euskerearen Egunean euskerazko poema liburu baten oinarritutako euskerazko ikuskizuna dalako. Hurrengo egunean, abenduaren 1ean, Argazki Lehiaketako sari banaketea egin zan udaletxean. Saritutako argazkiak, Udalaren 2025eko egutegian agertuko dira.

Artean, domekan, herritarrek euskeraz berba egiteko konpromisoa hartu eben, *Erein daigun hazia* izeneko ekitaldian.

Zeberion abenduaren 1ean, ospatu eben Euskerearen Eguna. Umeentzako tailerrek, mintzodromoak eta Tio Teronen Semeak jantzarien ikuskizunak osotu eben egitaraua.

Zaztaparrak asti taldeak, bere aldetik, Arratiako herri bakotxean, Euskerearen Egunean mural zati bat itxi eban zemendiaren 25 eta 29aren bitartean. Asteaz zehar

jentea mural zati horretara hurreratu eta bertan egozan materialakaz margotzeko aukerea izan eban. Euskerearen Egunean Arteko plazan 19:00etan batu eta herri bakoitxak osotu dauan zatia besteakaz batu eta mural osoa sortuko dabe. Ostean meriendea egingo da.

### Abenduak 3, Euskerearen Nazinoarteko Eguna

Euskerearen Eguna, Abenduaren 3a astebarruan danez, egunean bertan, arrastiz, izango dira ekintza gehienak.

Arantzazun, 18:00etan, manifestua irakurriko da, Argazki Lehiaketaren sari banaketea eta kantua eta euskerearen aldeko topa txokolateagaz. Ostean, 19:00etan, Tor magoak *Hator magiara* ikuskizuna eskainiko dau Herriko Tabernan.

Areatzan, Euskerea Sustatzeko Plan Estretegikoa egiteko parte-hartze saioa egingo da 19:00etan udaletxean. Planak euskerea bultzatzeko helburua bete dagian, zer egin behar dan hausnartu eta adostuko dabe partaideek saioan eta ostean kopaua izango dabe bertaratutakoek. Beste saio bat be egingo da hilaren 17an, honeri jarraipena emateko, ordu berean eta leku berean.

Artean, euskal musikea, jantzak, eskulanak, txokolatea, argazkiak, margoztea eta Irakurleen Txokoa egingo dira frontoian 17:00etatik 19:00etara. "Batu ditzagun ahotsak, eraldatu dezagun etorkizuna" lemapean antolatu da jaialdia eta norberaren edalontzia eroatea eskatuten da, plastikoen

erabilerea murriztuteko.

Bedian, bertako zinegotzi eta Labayru Ikastegiko zuzendaria dan Igone Etxebarriak idatzitako *Bedian jai giroan herriginen* liburuaren aurkezpena egingo dabe 18:00etan liburutegian. Ostean, 19:00etan, plazan, ardao eta gilda dastaketea egingo da, jai giroan, euskeraz herriginen jarraituteko.

Diman, 18:00etan egingo dabe Euskerearen Egunean ekitaldia frontoi txikian baina aurretik, 17:00etan plazan batuko dira eta aurkezpena egin ostean, kalejireia egingo dabe herritik frontoira joan aurretik. Ekitaldian, Euskaraldiko Hamaikakoaren aurkezpena egingo da, beste gauza askoren artean. Amaitzeko txokolatea bananduko da bertaratutakoaren artean.

Igorren, Euskerearen Egunean gala, Lasarte Aretoan izango da 17:30ean. Bertan, Inbiu egunean grabatutako bideoa egingo da ikusgai, baita musikea, bertsoak eta jantzak be. Ostean, kopaua egingo da Kultur Etxeko hallean.

Lemoan, euskerea ikasten dabilzaneen aitortza egingo deutse. Ekitaldia 18:00etan izango da Kotxepinen eta horrezaz gainera, Egunean Behin Lehiaketako sari banaketea, muralaren bideo aurkezpena, Asier Kidam magoa eta txokolatea egingo da hurreratzen diranentzat.

Zeanurin, Tartean Teatrok bakarriketak eskainiko ditu: *Txizatoki bat eszenatokian* eta *Hamalau Patxo* Telleriak eta Mikel Martinezek taularatuko ditue bakarriketok, hurrengo hurrengo, 19:00etan, Kultur Etxean.





IGORRE

## Udalak 5,9 milioi euroko aurrekontua onartu dau

**Erredakzioa**

Zemendiaren 27an onartu zan 2025eko Udal aurrekontua Igorren, EAJ-PNVren aldeko botoakaz eta EH Bilduren abstentzi-noagaz. Aurrekontua 5.919.137 eurokoa da. Inbersino gehienak diruzaintzako geldikina eta dirulaguntzakaz egitea aurreikusten dau Udalak.

Izan be, udal mantenimentuak, garbiketarak, kirol instalazioen zaintzak, alkarteentzako dirulaguntzek, kultura eta kirol eskaintzak eta gizarte ekintzek; hau da gastu finkoek, aurrekontuaren zati handi bat eroaten dabe, eta %3ko igoera jaso dabe partida gehienek.

"Aurten be kontu errealistak diseinatu doguz, udalariaren eta herritarren benetako beharretara egokitze" adierazo eban Olatz Urkiza Igorreko alkateak. Aurrekontuen diseinua igorretarren beharrezan "entzute aktiboan eta EH Bilduk aurkeztutako alegazino asko" hartuz egin dirala azaldu eban alkateak.

**Kirol instalazio eta urigintza**


2025eko aurrekontuek, 300.000 eurotik gorako hasikerako partida bat aurreikusten dabe, hainbat obra eta hobekuntza egiteko. Kopuru hori 2025eko bigarren hiru hilekoan handitzea aurreikusten da, milioi 1 euro inguruko partida bategaz, 2024rako aurreikusitako diruzaintzako geldikinari eta erakundeetatik jasotea espero

diran dirulaguntzei esker. Holan egitea aurreikusten da Garbe urbanizetako obren hasikerea, frontoiaren estalkiaren proiektuaren lizitazioa eta hasikerea, futbol zelaiaren ondoko kirol eremuaren hobekuntza, kiroldegiko frontoiaren, futbol zelaiaren eta udalariaren argiak hobetutea eta aldatzea; Agarre asfaltatzea; Laurkin asfaltatzea; Jubiladuen Lokala egokitzeko proiektuaren hasikerea; eta auzoetako postontziak ordezkatzeko. Gainera, 2025ean Lehendakari Agirrearen zati bat berrurbanizauko da eta Inazio Zubizarretaren eskolako patioa hobetzeko hirugarren fasea egingo da.

Alkateak, Udal aurrekontuetan xedatutakoa betetearen garrantzia azpimarratu eban. "2024an betetearen ehuneko, urtea zarratutearen zain, %75 ingurukoa izan zan; 2023an, barriz, %50ekoa".

**EH Bilduren abstentzioa**

EH Bildu abstenidu zan eta ez eban kontrako botorik emon, "oposizino proaktibo" egin gura daualako. "Gura dogu politika desbardin bat egin Igorren eta horri atxikituta pausuak emon beharko doguz. Gure botoa ez da izango baiezkoa, baina abstenidu egingo gara eta uste dot hemendik aurrera badaukagula nondik ibili eta danon artean lortzeko erea" azaldu eban EH Bilduk aurrekontuak bozkatzeko Osoko Bilkuran.



ARRATIA

## Arratian indarkeria matxistea sufridutako andren berbak jasoten eban performance bategaz hasi zan zemendiaren 25eko manifestazioa

Aurten, Arratiako Mugimendu Feministak, andren kontrako indarkeriagaz amaitzeko nazinoarteko egunean, Arratian be badagozala indarkeria matxista kasuak ipini gura izan dau fokuan.

**Erredakzioa**

Indarkeria sufridu daben edo sufriduten daben andrek alkarte bat sortu dabe Arratian eta alkarte horretako kideen testigantzak irakurri ziran manifestazioaren aurreko performancean. Manifestazinoan 500 lagun inguru batu ziran, zemendiaren 25ean Arratian inoz egin dan manifestazio jentetsuenetakoan.

Arratiako Mugimendu Feminis-

tak "Aho batez andranganako indarkeria matxistari aurre eginez" leloa hartu dau aurten, hurrekoa izanda be, indarkeriaren biktimarioak ez dagiala gizartearen babes euki eskatzeko eta aho batez aurre egiteko gurean be errotuta dagoan indarkeria matxistari.

Lelo horrek zabaldu eban manifestazioa, baina ez zan manifestazinoan pankarta bakarra izan; "Neska, trans eta bollerok autodefentsa feminista" alda-

rikatzen eban beste pankarta bat be egon zan. Eta manifestazinoan kanpo, baina manifestazinoaren ibilbidean, zuzi gorriak eskuan, indarkeria matxistea Arratian be gertatzen dala gogora ekarten eban beste pankarta bat erakutsi eben Orratzak Gazte Feministak taldekoek.

Beste batzuen artean, "Erasoen aurrean, danok bat", "Aske izan nahi dut, ez ausart" eta "Konponbidea ez bazara arazoa zara" aldarriak entzun ziran manifestazinoan.

**Gizonen inplikazioa**

Arratiako Mugimendu Feministak bertoko arazoa be badala azpimarratu gura izan baeban be, Euskal Herrikoak "Ez bazara konponbidea, arazoa zara" lelopean, gizonen erantzukizuna ekarri gura izan eban erdigunera.

Bezperako agerraldian gizonen zuzendu jakiezan Euskal Herriko Mugimendu Feministako kideak. "Gizon gehienek konplizitatea, justifikazioa eta indarkeria matxistak desagertu arazoteko eta salatze konpromiso falta izaten jarraitzen dozue" esan eben. Eta konpromiso falta hori arazo bihurtzen dala. Arazo hori zein dan be azaldu eben: "eraso bat salatzean gure berbea zalantzan ipintea; erasoren bat sufridu dogunean errua guregan ipintea; erasotzailea seinalau, baina zuen jokoerak ez errebisetea; indarkeriaren aurrean erantzukizunik ez hartzea".



<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 428 78 15 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 428 79 34 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre



ZEANURI

## Ekintzailtza astea antolatu dabe Zulaibarren

### Erredakzioa

Astearen helburua da gazteek jakitea zer dan ekintzailea izatea, ze aukera dagozan ekintzailtza mundu horretan eta gero ekintzaile batzuen esperientziak entzutea. Abenduaren 9tik 12ra izango da Errotak eta Zulaibar Ikastegiak antolatutako aste hau. Datorren urtetik aurrera Arratiako edozein gazteri zabalduetako asmoa dagoan arren, aurten Zulai-bargo ikasleentzat izango da.

Aste horretan, egunero, lehenengotik erakunde batek azalduko dau ekintzailtzaren alde teorikoa eta gero, ekintzaileak egongo dira euren esperientziak

azaltzen. Atzen egunean, talde dinamika bat egingo da: hiru erronka luzatuko jakie ikasleei eta aukera bardintasuna eta euske-rea kontuan hartuta, enpresa bat zelan sortu azaldu beharko dabe.

Alde teorikoa azalduten erakundeak, Dema Enplegu eta Ekintzailtza Foru Agentzia, Asle Euskadiko kapitalean parte hartutako enpresa alkarte eta Grupo SSI Gizarte ekimeneko eta onura publikoko enpresa alkarte. Euren esperientzia azalduko daben ekintzaileak bariz, Ekinean psikologia zentruko Maite Aldekoa; litiozko bateriak ekoizten dituan Alterityko Javier Peña eta soluzio mekatronikoak eskaintzen dituan Zumako Jon Madariaga izango dira.



IGORRE

## Jostailu erotikoen tailerra antolatu dau Arratiako Berbalagun ekimenak

### Erredakzioa

Tailerra, *Tuppersex* izenpean, abenduaren 13an izango da 18:00etan, Igorreko Kiñu Gaztetxean. Parte hartzeako izena emon behar da aurretik [arratia\\_berba@ae.eus](mailto:arratia_berba@ae.eus) helbidean.

Antolatzaileek galdera bat egiten dabe "Nola egin dibertigarriago sexu harremanak?". Eta tailer horretan sexu harremanak dibertigarriago egiten ikasiko dabela partaideek dinoe, jostailu erotikoak baliatuz. Izan be, sexua-

lidadea bizitzaren parte da eta euskeraz bizi ahal da berau be.

**Arratiako Berbalagun taldeak** Arratian, euskerazko mintzapraktika debalde eskaintzen dabezan Berbalagun taldeak Areatzan, Igorren eta Lemoan dagoz. Areatzako taldea martitzenetan, 19:00etan batzean da; Igorreko taldea, eguenetan 18:30ean eta Lemoan talde bi dagoz 19:00etan batzean diranak, bata eguenetan eta bestea barikuetan.



## gabonetan be bertako produktuen alde!

Zazpi Haizetaran bertako produktuak osatutako otzarak egiten doguz, bakoitzaren behar eta gustuetara egokituta.

Eskatu aurrekontua inongo konpromiso barik.

Lehendakari Agirre 11, Igorre (Bizkaia)

94 631 92 43

[zazpihaizetara.ariatia@gmail.com](mailto:zazpihaizetara.ariatia@gmail.com)

[zazpi\\_haizetara](#)

Zazpi Haizetara Euskal Herriko ekoizleen aldeko ekimena

# KONTZERTUETATIK ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA LEMOA-DIMA-ZEANURI

## DURANGOKO AZOKA - KONTZERTUAK

**NOIZ:**

**2024ko ABENDUAREN 7an (zapatu gauean)**

**NON:**

**LEMOAKO EUSKOTREN ESTAZIÑOAN**

**ORDUTEGIA:**

**GOIZEKO 03:00etan / GOIZEKO 05:00etan**

Arratiako  
Udalen  
Mankomunitatea  
Gazteria Arloa  
Área de Juventud





UBIDE

## Herriaren plangintzarako diru partideak bereizten ditu 2025eko Udal kontuak

### Erredakzioa

Urri bigarrenaren 30ean onartu ziran Udalbatzan 2025erako aurrekontuak Ubiden, Ubideko Herri Kandidaturako (UHK) botoakaz. Ubiden ez dago oposiziorik, udaletxean dagoan partidu bakarra UHK dalako. Guztira 357.374,00 eurokoa da Udal aurrekontua. Igazkoa baino apur bat handiagoa da, igazkoa 348.037,00 eurokoa izan zan eta.

Aurrekontuetan, handiena ez bada be, HAPO (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) egiteko diru partidea nabarmendu behar da. HAPOrako 128.865,00 euroko aurrekontua aurrekusten da, eta,

2025ean, 14.172,65 euro esleituko dira horretarako. "Izan be, 2025ean HAPOari barriro ekingo jako eta urtebete baino gehiagoko proiektua izango da" adierazo deusie BEGITURI Udaletik.

Horrezaz gainera, beste diru

partida garrantzitsuenak, jarduera soziokulturalak eta jaiak (30.000 euro), azterketak eta lanak (30.000 euro), kaleko garbiketak (25.000 euro) eta Arratiako Udaleten Mankomunitatea (24.000) euro dira.



ARRATIA

## Arratiako 33 enpresek osotuten dabe eusGara proiektua

### Erredakzioa

Zulaibar Ikastegian zemendiaren 22an egindako eusGara ekitaldian, Alinar Die Casting eta Industrias Galarza enpresek euren esperientzia eta aurten egindako praktikak aurkeztu ebezan. Arratiako Egoitzak, Jandonizek eta Piedadeondok be igaz hartutako konpromisoari tiraka, egindakoen barri emon eben. Kizkitza Aurrekoetxea Errota fundazinoko koordinatzailea; Aitor Aldasoro Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Isaac Amezaga Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia eta Arratiako udaletako ordezkariak egon ziran bertan, Arratiako 20 enpresatako ordezkariakaz batera.

Kizkitza Aurrekoetxeak estreinako aldiz hartu eban parte eusGara zerbitzuaren ekitaldian, koordinatzaile moduan lehen urtea dalako Errota fundazinoan. Zulaibarren alkartu ziran enpresa eta erakundeei eskerrak emon eutsezan "euskerea Arratiako lan munduan txertatzeko" egindako urratsengaitik eta "hizkuntzearen erabilera zabaltzeko egindako ahalegina" ezinbestekoa izan dalako, bere esanetan.

Handitzen doa eusGara ko-

munidadea eta gaur gaurkoz 33 enpresek osotuten dabe. Igaztik lau enpresa gehiagok hartu dabe euskera gehiago erabilteko konpromisoa. Bela Detail, Keia, Ortomobility eta Petardos CM enpresak dira aurten gehitu diranak.

eusGara zerbitzua Errota fundazinoak sortu eban 2017an eta berak kudatzen dau finanziaizino publikoagaz. Zerbitzua Ahize-AEK hizkuntza aholkularitzeak emon dau hasikeratik.

### Euskerea zaintza sektorean

eusGara zerbitzuak 2023an egindako hitzarmen ekitaldian, parte hartu eben Arratiako hiru egoitzek: Arratiako Egoitzak, Jandonizek eta Piedadeondok. Orduan, konpromisoa hartu eben euskeraren erabilera handitzeko eta horretarako, egoitzetan kontuan hartuko dabezala zainduak izango diran personen eta senideen hizkuntza hautuak, eta egoitzetako langileentzako oinarritzko hiztegi bat sortuko dabela.

Urtebeteko tartean hiru egoitzek eta eusGarako teknikariek Arratiako zaintza mahaia aktibau dabe eta Euskaraz Zainduz dinamikea sortu. Honen barruan, zaintzari lotutako euskerazko hiztegi afektibo bat sortu dabe.



Goian Zulaibar kanpokaldean ateratako argazkia eta behean enpresetako ordezkariak ekitaldian.





Neiker, Gorbeialde, Lorra eta Gorbeia inguruko abeltzainen alkartek osotuten daben Gorbeia\_GO taldearen dinamika parte-hartzailearen barruan, Areatzako Larrederreko artzaintza eta barrizatze gunera urtero egiten dan bisita egin da zemendiaren 4an. Bisita honen helburua artzaintza kanpainaren balorazioa egitea da, batez be, larrak hobetuteko eta konserbetako abereen gobernuan oinarritutako praktika moduan ezarritako esperientzia barritzailearena. Aldi berean, etorkizuneko ekintzak eta horreei ekiteko egutegia planteetan dira, inplikautako eragileen arteko lankidetzatza testuinguru baten.

Larrederreko larreak leheneratzeko, atzen urteotan hainbat hobekuntza praktika egin dira: ohikoenak diran sastraken garbiketa mekanikoak eta eskuzkoak, espezie lekadunen berrereintzak, abere kontrola, ganadua gobernetako praktikak... eta ez hain ohikoak baina abeltzainen inplikazio handiagaz egindako beste batzuk; esate baterako, behorakazko abeltzaintza ihiaren estaldura handia presionetako. Aurten, 2024an, Bizkaiko Foru Aldundiak, Neiker-egaz batera, abereak gobernetako praktika barri bat sartu dau. Praktika hori aspaldikoa eta barritzailea da, Euskadiko artzaintza eremuen kudeaketan eta konserbazioan: larreen kudeaketa ganadua erabiliz. Teknika honen bidez, modu ibiltari, sistematiko eta intensiboan, artaldeak artegi edo korta eroangarrietan jasotzen dau gaua.




## Larreen kudeaketa ardien bitartez Larrederren: esperientzia barritzailea Euskadiko mendi-larreen kudeaketan

Larrederren probatu zan, ardiak leku txiki baten (10 x 10 m) bildu ziran gauz. Holan, sats kontzentrazio handia gertatzen da esparruan, eta, ondoren, zapaldu egiten dira.

Hiru egunen ostean lekuz aldatzen da korta eta guztira 5 leku aldaketa egiten dira.

Aurten, lurzuaren eta landarearen laginketak egin dira, eta 2025ean barriro egingo dira, satsak lurrean egin dauan erantzun produktiboa baloratu ahal izateko.

Esperientzia hori modu positiboan baloretea espero da eta, ondoren, asmoa da leheneratu beharreko larreen eremuetan zabaltzea. Horretarako, larreen kantidadea eta kalitatea hobetuteko, lurzuaren emonkortasun adabakiak modu estrategikoan sartzeako asmoa dago eta larreak konserbetako tresna dan artzaintza estensiboa antolatzen lagundutekoa.





**KIT DIGITAL** **RK**

Oraindik ez duzu zure webgunea **DOAN?**  
Kendu kezka hori!!!

**ESTUDIO DUENDE**  
www.estudioduende.com  
martin@estudioduende.com  
617 332 691

Azkar ibili. 3000€ edo gehiago dituzu zure webgunea edo sare sozialak sortzeko zain...

Abendu honetan bakarrik duzu **Kit Digitala** eskatzeko aukera.

Jarri gurekin harremanetan konpromisorik gabe. **Areatzan gaude.**

# ABENDUAK 3

**Euskara:**  
bihotzetik burura, burutik eskuetara

**ERRATA**  
ARRATIAKO GARAPENERANTZA

**eusGara**  
lana eta euskara elkarlanean

**EUSKARAK 365 EGUN**

Ubideko Udala

**EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA**

Zeanuriko Udala





## **XLVI. NAZINOARTEKO IGORREKO ZIKLO-KROSA ABENDUAREN 8AN**



# Nazinoartekoa izango da barrero be Igorreko Ziklo-krosa

Abenduaren 8an jokatuko da Igorreko XLVI. Ziklo-krosa; aurten nazinoartekoa izango da eta Euskal Herriko zein kanpoko maila handiko ziklo-kroslari ezagunek hartuko dabe parte. Bezperan, Txiki Kopako lasterketa bat egongo da Olabarriko zirkuituan. Guztira 600 ziklista inguru izango dira Igorren astegoienean.

## Erredakzioa

Abenduaren 8an, goizeko 09:00etan hasiko dira lasterketak. Master kategorietako gizonak izango dira lehenengoak; 10:00etan, Master andrazkoak eta Kadete andra eta gizonen lasterketak izango dira. Ostean, 10:45ean, ordura arte egindako lasterketetako sari banaketea egongo da. Hurrengo lasterketak Junior mailakoak izango dira, 11:00etan, andrak eta gizonak, eta ostean, 12:00etan, hasiko dira lasterketa nagusiak, nazinoarteko txirindulariak ekarriko dituenak, Elite eta Sub23 mailakoak. 12:30etan, Elite eta Sub-23 andrazkoak lehiatuko dira eta 13:15ean, gizonak. Junior eta Elite eta Sub23 mailako lasterketetako irabazleek sariak jasoko dabez 14:30ean.

Atzen proba honeetan egongo dira nazinoarteko txirindulariak; Belgika, Italia, Frantzia eta beste herrialde batzuetatik etorritakoak. Euren partaidetza baieztatu dabenen artean, munduko talde indartsuenetarikoan dagoan Yorben Laurysen ziklista belgiarra, Marcel Meissen Alemaniako txapelduna. Anton Ferdinande belgiarra Igorreko Ziklo-krosa irabazitakoa be egongo da. 2021eko

Mountain Bikeko munduko azpitxapeldun Noemie Garnier eta Gwennig Le Dantec frantziarrak dagoz. Baita Kevin Suarez, Aitor Hernandez, Lucia Gonzalez eta Sofia Rodriguez be, batzuk aita-tzearren.

## Zirkuitu barrizatua

Aurtengo nobedadea da zirkuituari zati bat gehitu jakola, jatsiera gatx batez eta ia 3 km izango ditu. "Oin arteko zirkuituari aurreko pinudia gehitu jako. Pinudi ondoan egin dogu holango jatsiera apur bat arrisku-tsua" azaldu deutso BEGITURI Leire Aurrekoetxea lasterketea antolatuten dauan Arratiako Ziklista Elkarte presidentea.

Zati hau gehitzean, ez dabez ziklisten interesak bakarrik kontuan izan, publikoak be gustuko izango dauala uste dau Aurrekoetxeak. "Oso eroso da ikusleentzat, asko mobidu barik ikusi daiteke ia zirkuitu osoa. Leku batzuetatik, alde batera zelai-zelaietan dan zirkuituko zati handi bat ikusten da, boxak-eta dagozan lekua, eta aurrez aurre daukazu aldats eta zirkuitu barria".

Guztira 300 bat ziklistak parte hartzea espero dau antolakuntzeak. "Partaidetza Igorren beti izan da oso handia. Txirindulari-



tzan mobidu diranak eta mobiduten diranak danek daukie egun hau gordeta hona etorteko. Igorrek jarraitzen dau ziklo-kroseko marka bat izaten" dino Aurrekoetxeak.

Hori dala-ta, ehundaka ziklista ekarriko dituen lasterketak antolatutako boluntarioak lortutea ez da arazoa izaten.

## Boluntarioak eta babesleak

Boluntarioak, Igorreko Ziklo-krosaren hauspoa dirala dino Aurrekoetxeak, eta eskatu ahala, boluntario piloak lortzean dabezala. "Ziklo-kros bat antolatzea oso gogorra bada be, lur jota gagozanean, horrenbeste boluntario ikusteak, indarbarritu egiten gaitu. Ez dot

uste Igorrek erantzuten dauan moduan, erantzuten dauan beste lekurik egongo danik Bizkaian".

Babesleak be ezinbestekoak dira Igorreko Ziklo-krosa aurrera aterateko. Izan be, lasterketeak 60.000 eurotik gorako aurrekontua dauka. "Aurtengo ziklo-krosarako izan dogu laguntza berezi bat Igorreko Udaletik. Baina ha-ta guzti be, behar dogu babesleen dirua".

Abenduaren 7-8ko astegoienean, ia 600 ziklistak hartuko dabe parte probaren baten. Adin txikikoek zein nagusiek, hurretik zein urrunetik etorritakoek. Eta danen preminak beteteko baliabideak ipini behar ditu eskuragarri antolakuntzeak. "Udalagaz hartu-

emonetan gagoz eta aparkalekuak erreserba doguz, kotxeak edo autokarabanak aparketako. Institutuko parkinga hartuko dogu, Batz-eko parkinga be bai... Txirindulari gehienak autokarabanetan etorriko dira, txirindularitza munduan dana da autokarabane-eta, baina Arratiako hoteletan be egongo dira batzuk".

Lasterketea streaming plataforman egongo da ikusgai <https://www.youtube.com/live/sa2rwyxmQeI> helbidean.

Baliabide guztien barri emoteko, gida tekniko prestatu dabe eta laguntzaileen artean bananduko dabe. "Dana daukagu bideratuta" dino Aurrekoetxeak.





## 46. edizinoa

1977tik jokutzen da Igorren ziklo-krosa. Hasieran San Kristobal auzoan eta 1993an, Munduko Kopako lasterketea zala-ta, Olabari auzora mobidu zan zirkuitua.

### Erredakzioa

Lehenengo 43 edizinoak, Igorreko Ziklo-krosa eta AZE sortu ebenek antolatu eben, taldeko buru Juan Mari Zurinaga presidentea eta Ander Gorospe ziral. 43 urtez, urtero jokatu zan eta lehenengo edizinoa eta 2018koa kenduta, gainontzeko guztiak nazinoarteko lasterketak izan ziran. Hasieran, gizonezkoek bakarrik hartzean eben parte, baina denpora eta feminismoaren porasuz, Igorreko Ziklo-krosak andrazkoen lasterketak be joan zan hartzean. Ha-ta guzti be, etapa haretako azken edizinoan, 2019ko 43. edi-

zinoan, oindino ez egoazan maila guztietako lasterketak neskentzat.

2020an COVIDa zala-ta, jentea biltzean eben ikuskizunak galarazo egin ziran. 2021ean, zuzendaritza barri batek hartu eban erreleboa AZEn eta 44. edizino haretan, umeak, txirindularitza eskolak eta gazteak izan ziran Igorreko Ziklo-kroseko protagonistak. Txiki Kopako atzen lasterketea eta Kadete eta Gazte mailako lasterketak jokatu ziran Olabarriko zirkuituan. "Sartu ginean 2021ean, sartu barri genozan eta ez genduan sartu gura bat-batean garrantzia handiko lasterketa mordo bat prestatzen.

2022an, barriro be Nazinoartekoa izan zan Igorreko Ziklo-krosa, 2023an ez genduan ezer egin eta aurten barriro errekerperau dogu nazinoartekoa" ekarri dau gogora Aurrekoetxeak.

AZEko presidentek argi dauka herriko jentea harro dagoala hainbeste urtetan nazinoarteko proba bat hartu daualako Igorrek. "Herria oso harro dago ziklo-krosagaz. Jentea harro sentiduten da ziklo-krosa Igorren mantenduten dogulako. Altxor bat da urteetan Igorreri berezitasuna emon deutsana. Txirindulariek ikusten dabe Igorre izena, eta atoan erlazionetan dabe ziklo-krosagaz".



1981eko Igorreko Ziklo-krosaren urtekerea San Kristobalen.



## Txiki Kopa zapatuan

Ez da bakarrik domekan izango ziklo-krosaren festa Olabarriko zirkuituan. Bezperan, Txiki Kopako lasterketa bat jokatu da bertan eta Bizkaiko ziklismo eskoletako ia 300 ikaslek hartuko dabe parte.



### Erredakzioa

Txiki Kopa 7 lasterketek osotuten dabe eta Igorrekoa seigarrena izango da. Aurretik ziklo-krosari gazteek Urduñan, Elorrioren, Zornotzan, Lezaman eta Karrantzan parte hartuta, etorriko dira Igorrera. Atzen lasterketea Gorliz izango dabe hilaren 21ean.

Igorren arrastian izango dira probak. 14:30ean, zirkuitua berrikusi

eta 14:45ean, Benjamin neska eta mutilek egingo dabe lehenengo lasterketea. Ondoren, Kimuen txandea izango da 15:05ean, eta 15:30ean, Haur kategoriakoena. Kategoria honeetan, Haur kategorian izan ezik, batera lehiatzen dira neska eta mutiak. AZEko eskolako batzuk parte hartuko dabe lasterketa honeetan.

Zapatu goizean, domekan parte hartuko daben nagusiek entrenauko dabe Olabarriko zirkuituan.

<b>2024</b>
<b>ORDUÑA</b> URRIAK 12
<b>ELORRIO</b> URRIAK 26
<b>AMOREBIETA</b> AZAROA 2
<b>LEZAMA</b> AZAROA 24
<b>KARRANTZA</b> ABENDUA 1
<b>IGORRE</b> ABENDUA 7
<b>GORLIZ</b> ABENDUA 21

14:30. ZIRKUITOAREN BERRIKUSTEA  
14:45. BENJAMINAK MUTILAK - NESKAK  
15:05. ALEBINAK MUTILAK - NESKAK  
15:30. INFANTILAK MUTILAK - NESKAK





**UCI** UNION CYCLISTE INTERNATIONALE



XLVI.  
NAZIOARTEKO  
ZIKLOKROSA  
**IGORRE**  
**08·12**  
2024



**9:00**

MASTER 30-40-50-60 Gizonak

**10:00**

KADETEAK E/G - MASTER Emakumeak

**10:45**

SARI BANAKETA - Master eta Kadeteak

**11:00**

JUNIOR Emakumeak eta gizonak

**12:00**


ELITE - SUB23 Emakumeak

**13:15**

ELITE - SUB23 Gizonak

**14:30**

SARI BANAKETA - Junior eta Eliteak





## Aurtengo Gabonetan, emon bizia zure auzo eta azalari *Haize Natura*

Denda txikiak dira gure auzoen bihotza, gure kaleen arimea. Haize Naturan, gertukoaren magian sinisten dogu, zure izenez agurtu eta inork ez bezala mimatzen zaituen merkataritzan. Hau irakurten bazabiz, egin apustu tokikoaren alde, sinistu benetakotasunean.

Jai honeetan gure Erritual Esklusiboak sortu doguz, *Dulkamara Bamboo*-ren kosmetika natural, biologiko eta ekologikoaren aldeko apustua eginaz. *Dulkamara Bamboo* Ultzamako (Nafarroa) Pirinioaurreko Haraneko harribitxia da, landare, alga, zugatz-gorringo eta buztinen estraktuetatik sortua, zure azaleko lesino zelularrak tratatzeko estresagaitik, zahartzeagaitik edo beste alterazino batzuegaitik.



Esperientzia ahaztuezinak oparitu gura dozuz? Eskaneatu eta ezetu gure Gabonetako Edizinoko Arpegi eta Gorputz Erritualak!

María Galván, Haize Naturako zuzendari nagusia

**haize natura**  
MARÍA GALVÁN ARPEGIAN ADITUA

Informazioa 94 631 91 20 | 688 85 48 89

Sabino Arana, 22, Behea | 48140 Igorre | [www.haizenatura.com](http://www.haizenatura.com) | [mariagalvanfacialista](mailto:mariagalvanfacialista)



### EUSKARAREN EGUNA

**Azaroak 30, zapatua**

19:30 Manttalingo alaba emamaldi musikatua komentuan.

**Abenduak 1, domeka**

12:00 Areatzako Argazki Lehiaketaren sari banaketa udaletxean.

**Abenduak 3, martitzena**

19:00 Areatzan euskara sustatzeko plan estrategikoa udaletxean. Ostean kopaua egongo da.

**Abenduak 17, martitzena**

19:00 Areatzan euskara sustatzeko plan estrategikoa udaletxean. Ostean kopaua egongo da.

AREATZAN ERE EUSKARAZ BIZI GURA DUGU!




- LAN PUBLIKOAK
- UR ETA SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK



94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)  
[eraiketak@construccioneseekin.com](mailto:eraiketak@construccioneseekin.com)





Arantzazu  
euskaraz  
busti

Euskararen  
Eguna 2024

Arantzazuko Udala  
eta Jai Batzordea

Abenduaren 3an  
eta urte osoan  
ekingo deutsagu  
**EUSKERAZ**

DIMAKO UDALA

Zaindu dezagun euskara  
urteko 365 egunetan.

EUSKARAK  
**365**  
EGUN

artea  
udala



Gorde erosketa-tiketa.



*Gabonetan*  
**EZ IZAN  
TXORIBURU**

Kontsumitu buruarekin  
Eta zalantzarik baduzu,

[kontsumobide.eus](https://kontsumobide.eus)



#KontsumitzenJakin



**kontsumoBIDE**  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



## MENDIA



## Julen Ozaetak eta Oihana Azkorbebeitiak irabazi eben Lemoatx Traileko lasterketa nagusia

### Erredakzioa

Zemendiaren 17an jokatu zan Lemoatx Trail 2024 eta 25 kilometroko lasterketea irabazi eben Julen Ozaetak gizonetako eta Oihana Azkorbebeitiak andrazkoetan. Bizkaiko txapela be jokatu zan bertan eta Oihana Azkorbebeitiak eta Mustafa Mahfoudek jantzi eben. Hamazazpi kilometroko lasterketan Aner Zuluaga Igorrekoak hirugarren egin eban.

Julen Ozaetaren atzetik, Mikel Unda eta Mustafa Mahfoud sartu ziran bigarren eta hirugarren postuetan, podiuma osotuz. Mahfoud izan zan Bizkaiko txapelduna beste biak ez dagozalako federata.

Andrazkoetan, lasterketa hau

hain gustukoa dauan Oihana Azkorbebeitiak izan zan lehena eta lastertetea irabazteaz gainera, Bizkaiko txapela be irabazi eban. Oihane Unzaluk eta Maitane Arkarazok osotu eben podiuma bigarren eta hirugarren, hurrengo hurrengo, eginda.

### Lemoatx Trail 17 km

lñigo Praderak irabazi eban gizonetakoetan, 17 kilometroko lasterketea. Beragaz podiumean Andoni Uzkiand eta Aner Zuluaga igorretarra egon ziran.

Andrazkoetan, Itsasne Urkiagak irabazi eban lasterketea. Bere atzetik sartu ziran helmugan Irati Garcia eta Zaloe Alvarez, bigarren eta hirugarren eginda.

## HERRI-KIROLAK

## Zeanurin jokatu da andrazkoen Bizkaiko Harrijasotze Txapelketea

### Erredakzioa

Hamar harrijasotzaile lehiatuko dira, abenduaren 15ean, eguerdiko 12:30ean, Zeanuriko frontoian. Zihara Zabala, Aida Ugalde, Itxasne Apraiz, Laura Perez eta Julia Martinez neurtuko dira 60 kilotik beherako kategorian eta Karmele Gisasola "Zelai III", Patricia Martin, Lucia Orbe, Leire Olea eta Ane Atxutegi kategorian absolutuan. 60 kilotik beherako kategoriakoek 62,3 kiloko harri zilindrikoa, 50 kiloko harri kubikoa eta 50 kiloko bolea altzau beharko dabe, minutu biko altzaldietan be.

bolea altzau beharko dabe, minutu biko altzaldietan be.



## MENDIA

## Gorbeia Suzienek Europarc-en Green Label CXM ingurumen ziurtagiria lortu dau

Gorbeia Suzien, Green Label CXM ziurtagiria lortu dauan espainiar estaduko 4. mendi lasterketea da, lehena euskal lasterketen artean.



### Erredakzioa

Europarc Europako Parke Naturalak biltzean dituan erakundea da eta Alemanian dauka egoitza. Zigilu honek Naturagune Babesuetan Mendiko Lasterketak Garatzeko Jardunbide Egokien Gida beteten dala ziurtzen dau.

Antolakuntzearen arabera, urtero, Gorbeia Parke Naturalean egiten daben probak ingurumenean dauan eragina minimizezako prozesu zorrotz bateri egiten deutse aurre eta aurtan, Europako zigilu hori lortutea izan dabe hel-

buru. Ziurtagiri horrek jasagarritasun estandar altuak betetea eskatu deutse hiru fasetan zehar: ekitaldiaren plangintzan, gauzaztean eta ebaluzioan.

Europarc Federazioa Europako natura eta kultura ondarearen sarea da. Naturaren kontserbazio praktikoan eta Europako biodibersidadearen garapen iraunkorrean egiten dau lan.

### Karbono errastua gitxitzeko ahalegina

Azken edizioan funtsezko neurriak ezarri ditue: esate baterako,

ingurunearen azterketa eta ekitaldiaren ingurumen inpaktuaren kuantifikazioa eta seinaleztapean berrerabil daitezkean materialen erabilera eta boluntarioen ingurumen prestakuntzea. Gainera, hondakinen bereizketa eta bilketa zorrotza egiten dabela dinoe, baita ingurumen inpaktuari buruzko txostena be. Hor, hondakinak arintzeko eta konpensezko neurriak jasoten dira. "Ahalegin horreek funtsezkoak dira gure karbono errastua gitxitzeko, bertako flora eta fauna errespetetako eta Gorbeia Suzieneko edizino bako-txa ingurune naturala errespetetako eredu bat dala ziurtatzeko" azaldu dabe prensa-ohar batez.

Karbono errastua kalkuletako, konsumo datuak jaso dabez: urarenak, erregaienak, elektrizidadearenak eta bereizi ondorengo hondakinenak (plastikoak, pape- ra, beira, organikoak eta abar). "Estadu mailan holan egiten dan lehen proba da. Gainera, Gorbeia Suzieneko konpromisoa da urtero boluntarioak batera ekintza bat egitea gure ingurune naturala hobetuteko".

## PELOTEA

## Amaia Aldaik Lau eta Erdiko Txapelketako finala jokatu dau

Basaurin abenduaren 1ean jokatu dau finalurrekoetan, Amaia Aldaik eta Goiuri Zabaletak Miriam Arrillaga eta Itxaso Erasoren kontrako partidua irabazi ebezan, hurrenez hurren. Partidu biak 22-12ko emoiereagaz amaitu ziran.

### Erredakzioa

Aldaik aurretik hiru aldiz irabazi dauan txapelketaren finala abenduaren 15ean izango da Sestaon eta bertan Zabaleta izango dau aurkari pelotari dimoztarrak, igaz lez.

Miriam Arrillaga, bere aurkari aginagarrik, ondo hasi eban partidua, partidua oso fisikoa izan zan, gogorra. Atzenengoz bosna bardi- du ebena baina 14-12ra arte nahiko parean joan zan partidua. Hor hautsi eban partidua Aldaik eta hortik aurrera tantu guztiak jarraian egin eban Dimakoak 22ra heldu arte.





## FUTBOLA

# Andrazkoen Arratia Ak eta Lemoako Harrobik irabazi dabe atzen jardunaldian

### Erredakzioa

Arratia futbol taldeko andrazkoen A taldeak eta Lemoako Harrobik irabazi dabez euren partiduak. Gizonzkoen Arratia Ak eta Bk eta andrazkoen Bk osteratu galdu.

Andrazkoen Arratia A taldeak abenduaren 1ean jokatu eban etxetik kanpo Oiartzun taldearen kontra eta 0-2 irabazi eban. Hamahiru jardunaldien ostean 26 puntu ditu talde arratiarrak eta laugarren postuan dago. Datorren partidua Urbietan jokatu dau andrazkoen taldeak baino ez dituan Mulier talde nafarraren kontra hilaren 7an, eguerdiko 13:30ean.

Andrazkoen Arratia B taldeak zemendiaren 30ean jokatu eban Urbietan Ugeraga taldearen kontra eta bigarren zatian kanpokoek lortutako gol bateri esker 0-1 galdu eban. Bederatzi jardunaldien ostean 18 puntu ditu Igorreko taldeak eta hirugarren postuan dago sailkapenean. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Derio A taldearen kontra hilaren 5ean, gaueko 20:30ean.

Gizonzkoen Arratia A taldeak zemendiaren 30ean jokatu eban etxetik kanpo Otxarkoaga A taldearen kontra eta 5-3 galdu eban. Hamaika jardunaldien os-

tean igoera postuetatik urten dau Arratiak eta laugarren postuan dago 21 puntugaz. Datorren partidua etxean jokatu dau Amorebieta B taldearen kontra hilaren 6an, gaueko 20:15ean.

Gizonzkoen Arratia B taldeak be zemendiaren 30ean jokatu eban Artibai taldearen kontra etxetik kanpo eta atzen minutuetan Artibaik sartutako golak puntu barik itxi eban Arratiako taldea, 2-1 izan zan atzen emaitza. Hamaika jardunaldien ostean 11 puntu ditu Arratiak eta hamahirugarren postuan dago. Atzen sei partidua jarraian galdu ditu Arratia Bk eta atzeko postuak gero eta hurbilago ditu. Datorren partidua etxean jokatu dau atzenurren postuan dagoan Berriatuko taldearen kontra hilaren 6an, arrastiko 17:45ean.

### Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik denporaldiko bigarren garaipena lortu eban zemendiaren 30ean etxetik kanpo Berriatuko taldearen kontra 0-3 irabazita. Hamaika jardunaldien ostean 9 puntu ditu Lemoako taldeak eta hamaseigarren postuan dago. Datorren partidua Arlonagusian jokatu dau Moraza A taldearen kontra hilaren 6an, eguerdiko 12:30ean.



Zemendian Urbietan jokatu zan andrazkoen Arratia A eta Racing-en arteko partidua.

## MENDIA

# Alex Txikon oingo neguan, Annapurnako tontorra zapaltzen saiatuko da

Alex Txikon alpinista lemoztarra zemendiaren 22an abiatu zan Nepalera, neguan Annapurna (8.091 m) igoteko asmoz. Horretarako, Matia Contte italiarra, Sajid Sadpara pakistandarra eta Waldemar Kowalewski poloniarra izango ditu sokakide. Lehen asteetan, eta aklimatazino moduan, Txikonek eta 10 kideko talde batek Ama Dablamera (6.812 m) lehen igoera egingo dabe.



Mendietxe Museoan egin zan espedizinoaren aurkezpena.

### Erredakzioa

Ama Dablam "Himalaian mendi ikoniko bat, bere edertasunagaitik eta iriste tekniko zorrotzagaitik ezaguna" dala dino Txikonek eta hasierako fase hori funtsezkoztat jotzen dau aklimatazinoarako lemoztarrak.

### Neguan zortzimilakoak egiten

2016ko neguan Nanga Parbat (8.126 m) eta 2023an Manaslu (8.163 m) egitea lortu ondoren, Txikon, bigarren neguz jarraian, Annapurnako tontorra zapaltzen saiatuko da. Annapurna munduko mendirik arriskutsuenetakoa da. Izan be, hilkortasun-indize handia dauka alpinisten artean, bere baldintza klimatiko aurreikusiezinegaitik eta

edur-jausiak izateko etenbako arriskuagaitik. Hamalau zortzimilakoen artean gailurrik konplujenetakotzat jotzen da, neguan, -30 °C-tik beherako tenperaturak egoten dira eta 100 km/h-tik gorako haize urakanaduak. "Ez da helburu personala bakarrik; geure buruari desafioa egiten jarraituteko eta naturan giza erresistentziak dituan mugak esploratuko gaitasuna be adierazoten dau", esan eban alpinistek espedizinoaren aurkezpenean.

Txikonentzat, mendiak, bildurrei aurre egiteko, erresilientzia landuteko eta zoritxarraren aurrean irauteak zer esan gura dauan barriz definituteko bizi-eskolea dira. "Espedizino bako-tza bidaia fisiko eta emozional bat da, ikasteko, egokitzeko eta

ezinezkoa dirudiana gaintzeko gogo agortezina islatzen daua. Arrakastea ez da beti gailurra lortzeagaitik neurtzen, baizik eta inguruneagazko errespetuagaitik, arriskuaren kudeaketeagaitik eta taldeagazko eta norbere buruagazko lotureagaitik".

Txikonek espedizinoetan, oxigeno artifiziala erabiltea saihesten dau, eta ingurumena errespetetan daben praktikak sustatzen ditu, esate baterako, kanpamentu bakoetean hondakinak garbitutea eta eguzki-panel eroangarriak erabiltea. Hondakinak batzeko lanak, bai Oinarriko Kanpamentuan, bai altuerako eremuetan egingo ditue.

### Sokakideak

Matia Contte italiarra, Waldemar Kowalewski poloniarra eta Sajid Sadpara pakistandarra (Ali Sadpararen semea, Txikonek 2016ko neguan Nanga Parbatean gailurra egin eta 2021ean K2an hil zan alpinista pakistandarra) dira lemoztarraren sokakideak espedizino honetan. Contte nabarmen-tzen da lur teknikoetan daukan esperientziagaitik eta muturreko baldintzetan eraginkortasunez mobiduteko gaitasunagaitik. Kowalewski ibilbide sendoko alpinista da eta bere talde pentsamoldea funtsezkoa izaten da espedizinoetan. Sadparak, barriz, Annapurna oxigeno barik egin eban 2023ko apirlean eta bere esperientzia mendi honetan oso baliagarria izango da.

**ASESORIA Gorbeialde**  
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza  
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza  
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

**HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA**  
*Bilatu dezu jakitza Bilatu dezu proiektua*  
-Solentun zein aldiruan  
Lurrak (arkitekto, landa, baso...)  
Etebiziak (jauki, basoak, etxak...)  
Garajeak  
Lokal komertzialak  
Pabiloiak...  
-Balaztioak  
Irakin berria erakitzeko  
Informazio  
AKTIBOAK  
-Bainu diseinua  
-CEE eta IIE-ak  
-Hirigintza aholkularitza  
-Negozioak irekitzeko kudeaketa  
Lanbideak: Agirre 25, 48100 - Agirre  
Agirre 25, 48100 - Agirre 25, 48100  
Agirre 25, 48100 - Agirre 25, 48100  
Agirre 25, 48100 - Agirre 25, 48100

**GORBEIALDE**  
LANDA GARAPENA  
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

**Kili-Kili**  
Anpas eta Puntukoak  
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 673 43 81

**Olaetxe**  
Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gubitua  
Begiko tentsioa  
Lentillen adaptazinoak  
Kiroletarako betaurrekoak  
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel.: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

**TXIN-TXIMINI**  
• Tximinien garbi-ikuzia  
• Ikuskapena telebista kamarakaz  
• Txosten teknikoak  
• Instalazinoen erabarritzea eta mantenimentua  
Telefonoa 657 77 94 58  
info@txin-tximini.com  
TXIN-TXIMINI.COM · Bizkaia



## BERTSOLARITZEA

## Igorreko Ekhi Zuluaga eta Arteako Iradi Barrenetxea sailkatu dira BBK Bertsolari Gazteen Sariketako finalera

## Erredakzioa

Finala abenduaren 5ean jokatu da Zornotzako Zelaieta Zentroko Auditorioan, 18:30ean. Han, arratiarrak dagozan taldea, Puntuak eta komak, Sagutxo kaskarinak 2.0 taldearen kontra neurtuko da.

Lehenengo finalurrekoa zementiaren 18an Gernika Lumon izan zan. Han, Sagutxo kaskarinak 2.0 taldeak lortu eban pasea, Arantzazuko Aiala Iurria egoan Arrakalak loratu taldeari irabazita.

Bigarren finalurrekoa Mungian jokatu zan zementiaren 20an. Saio horretan neurtu ziran Puntuak eta komak eta Xarmengarriak gira taldeak. Bietan egoan arratiarrak; Puntu eta komak taldean, Igorreko Ekhi Zuluaga eta Arteako Iradi Barrenetxea eta Xarmengarriak gira taldean, Enara Gallastegi Dimakoa.

Finala publiko orokorrari zuzenduta dago, doban da eta hainbat barrikuntza eta sorpresa egongo dirala agindu dabe Bertsozale Elkartekoek.



## ANTZERKIA

## Miñan, Ibrahima Balderen bizitza kontetan dauan antzezlanaren Igorren

## Erredakzioa

Abenduaren 12an, 20:00etan, Artedramak, Arte Eszenikoen Plataformak, *Miñan* antzezlanaren ekarriko dau Igorreko Lasarte Aretora. Miñan (anaiatxo) Ibrahima Balderen bizitza kronika da, berak ahoz kontatutakoa, Amets Arzallusek idatzitako jasotakoa, eta Artedramak antzerkiera egokitutakoa.

Ibrahima kamioi baten ebulan aprendiz Ginean, egun baten amak deitu eban arte: anaia txi-

kia falta zan etxean. Eta haren bila abiatu zan. Basamortua kurrutatu; pasatzaile, polizia, bahitzaileak topo egin; egarria, gosea eta mina ezetu eban Afrikatik Europarako bidean. Mediterraneoan zeharkatzen dabenak deshumanizatea ezinbestekoa da euren heriotzen, kanporatzen, ilegalizatuak bizitzen gaineko ardura eza zabaldutako. Baina bizitza horreetako bakoitza bakoitza da eta, beraz, unibersala. Eta konteteak hori azpimarratzen dau.



## LIBURUA

## Igone Etxebarria: "Ondare immateriala bizia da, eta bizirik dagoan guztiaren moduan, aldatu egiten da"

*Bedia jai giroan herriginen izeneko liburua argitaratu dau Igone Etxebarria Bediakoak, Euskerearen Egunean aurkeztuko dana. Labayru Fundazioko zuzendariak herri ondarea jasoten dituen hainbat liburu ditu kalean, eta azken honetan, jaiek, herria sentiduarazoteko daukien garrantziaz egiten dau berba.*

*Igone Etxebarria euskaltzain urgazlea be bada.*

## Erredakzioa

**Euskerearen Egunean aurkeztuko dozu *Bedia jai giroan herriginen zure liburua Bedia*. Zer da liburu honetan kontetan dozuna?**

Liburu hau Bedia herri ondarea batzeako eta zabaltzeko egin diran egitasmoen barruan sartu behar da. Hasteko toponimiaren gaineko ikerketea egin genduan. Gero beste monografia bat egin zan, orokorra, bizimoduko arlo guztiei buruzkoa: herria, auzotasuna, nekazaritza, jaiek, bizitzako eta heriotzako errituak, kantu batzuk... Eta horren ostean baserrien katalogoa argitaratu genduan. Tartean bideo batzuk egin doguz, herriko leku eta gai jakingarriak erakusteko, ibilbide baten bitartez.

Oraingo hau herri-egutegiari buruzkoa da, urtean zehar egiten diran jaiei buruzkoa. Jaietan, batzuk egutegian gorritz dagozanak dira eta ospatzeko modu jakin bat dakarre. Beste batzuek pertsonen bizitzeagaz daukie zerikusia. Osotara urteko zikloa biribildu dogu.

**Liburu idatzi aurretiko ikerketa prozesua dago, ezta?**

Lan honen helburua herri ondarean oinarritutako azterketa bat egitea da, kasu honetan jaiei buruz. Herri ondare immateriala da eskuartean darabilguna. Ondare horren ezaugarriak dira giza talde batek konpartidutea eta belaunaldiz belaunaldi igarotea. Holako ezaugarriek herri bateko kide sentiduarazoten gaitue, identidadeagaz lotu-lotuta dagoz. Beste arlo asko be badagoz, baina oraingoan jaiei lotutakoa landu dogu.

Ikerketa egiteko gaitegi bat erabili dogu, urteko zikloagaz lotuta dagoana. Urte hasieratik eta atzenera doan kate bat osotzen da, urtez urte errepikatzen dana. Sasoi bakoitxeko ohiturak oso lotuta dagoz eguraldiagaz, lurreko eta animalien beharraz, eta bi-



zitzako une bereziak ospatzeagaz.

Jaien beste ezaugarri bat da taldean, jenteagaz ospatzen dirala beti. Lagunakaz, familiagaz, herrian, auzoan, kintakoakaz... Eta ohitura batzuk behin eta barrero errepikatzen dira, baita zentzua galduta be. Zergaitik ipinten dogu sanblas haria San Blas egunean? Ez samako gaixoak osatzeko, gure aurrekoek egiten ebelako baino.

Halanda be, ondare immateriala bizia da, eta bizirik dagoan guztiaren moduan, aldatu egiten da. Horregaitik, heriotzak ez dira lehenagoko errituakaz egiten, baina oin be alkartzen gara era batera edo bestera hildakoari agur egiteko. Azkeneko urteetan asko be asko aldatu da Eleizeagaz zerikusia daukien ospakizunak. Oin beste itxura bat emoten deutsegu, baina egin egiten doguz, Gabonak kasurako.

**Jai giroan eta herriginen: azaldu apur bat elementu bi honen garrantzia.**

Jaiak aztertu doguz, baina jaiok ondare immateriala diran aldetik, herri sentiduarazoten gaitue. Etxetik etxera hainbat ohitura aldatu egiten dira, baina orokorrean herri mailan badago identidade orokor bat, jarduteko eta ospakizunak egiteko modu orokor bat, eta horrek herri bat garelara, edo herri bateko kide garelara adierazoten deusku. Aurrekoek hori egiten eben, eta geuk be antzera, beti sasoiak sasoiko-

ra egokituta.

Ondare immaterialak gizarte edo herri jakin baten ezaugarriak batzean ditu, eta aldi berean herri horretako kideei identidade hori emoten deusie. Horregaitik, nondik gatozan ezagutzea oso garrantzitsua da jakiteko gauzak zergaitik egiten doguzan era batera edo bestera.

**Liburuaren aurkezpena egingo dozu Bedia Euskerearen Egunean. Esan lei, jai giroan eta herriginen izango dala.**

Euskerea da gure ondare immaterialaren adierazgarriarik onena, euskereak egiten gaitu euskaldun. Liburu aurkezteko egun egokia izan eitekeala pentsatu zan eta halan ipini genduan. Jai giroan, bai, ze gero jan-edana egongo da, gure ospakizun ia danetan moduan; baina herriginen, gure ondarea gehiago ezagutzeko ahaleginean.

**Bediaren gaineko beste ezer zabiz (edo dabil Labayru) ikertzen ala hau da azkena?**

Ontxe bertan ez daukagu ezer eskuartean, baina badago zer aztertu eta zer landu. Agertuko dira beste egitasmo batzuk, seguru. Aurten Ondarearen Europako Jardunaldietan Arratiako tranbiaren inguruan ibili ginan, gai polita hori be. Edo argazki zaharrak batu eta ondo katalogatzea, beste herri batzuetarako egiten gabiltzan moduan. Idea faltarik ez dago, eta Bedia argi euki dogu beti arlo hau lantzea oso garrantzitsua dana.



## ABESBATZA

### Luis Iruarrizaga Abesbatzak Gabonetako kontzertua eskainiko dau hilaren 14an Igorreko Kultur Etxean

#### Erredakzioa

Abenduaren 14an, 19:30ean, Igorreko Luis Iruarrizaga Abesbatzak kontzertua eskainiko dau Igorreko Lasarte Aretoan Miren Zubietaren zuzendaritzapean eta Marta Diez piano-joleak lagunduta.

Abesbatzak, L. Cohen-en *Hallelujah*; K. Jenkins-en *Adiemus*; J.C. Perez-en *Lau teilatu*; ETSren *Zurekin batera*; J. Guridiren *Hator hator* eta B. Erxillaren *Mesias sarritan* kantuak eskainiko ditu. Arratiako Musika Eskolako umeak eta Eingo taldeko umeak be egongo dira eta abesbatzagaz kantauko dabez abesti batzuk.



## EUSKEREA

### Euskal Herriko I. Hikadromoa antolatu dabe Azokan



#### Erredakzioa

Abenduaren 7an izango da 16:00etatik 17:45era Landako ikastetxean. Izena *online* emon daiteke <https://labur.eus/Hikadromoa> estekan edo 943 12 17 75 eta 652 750 947 telefonoetara deituta.

ZirHika taldeak antolatu dau Hikadromoa eta aurtengo Durangoko nobedadeetako bat izango da. Hika dakienak eta ikasten dabizanak dagoz konbidautu. Euskalkian zein batuan, bakotzak berean egiteko aukerea izango dau. Hikadromoa Bagera Euskara Elkarteak gidatuko dau: laukoteak osotuta jardungo dabe hika, 15 minutuero taldez eta gaiz aldatuz.

#### ZirHika

ZirHika taldea Euskal Herriko hainbat tokitako hika eragileek osotuten dabe. Badihardugu euskera alkarteak koordinetan dau. Igaz egin zan Euskal Herriko

I. Hika Topaketaren ondoren sortu da, alkar ezetu, indarrak batu eta hitanoa bultzatzeko. Hikadromoa izan da antolatu dauan lehen jarduereta eta, horretarako, hainbat bidelagun izan ditu: Bagera, Praktikatu AEK eta Gerediaga, besteak beste.

#### Hitanoagaz lotutako beste jarduereta batzuk azokan

Abenduaren 6an, berbaldiak egongo dira areto nagusian, 19:20an hasita. Lehenengo, Badiharduguk hika ikasteko Appa Hi! aplikazioaren bersino barriak eta *hika. ahotsak.eus* webgunea aurkeztuko ditu. Ondoren, Fernando Oartzunek Leitzako hiketea izango dau hizpide eta grabazioak sarean zelan konsultau azalduko dau.

Abenduaren 7an, 11:30ean Durangoko museoan, *Hik eta biok* mahai-ingurua egongo da, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak antolatuta.

## BERTSO-AFARIA

### Unai Iturriaga eta Andoni Egaña egongo dira Zeanuriko bertso-afarian



#### Erredakzioa

Gabonetako kultur programazioaren harira, Zeanuriko Udalak bertso-afaria antolatu dau. Abenduaren 13an, 21:30ean izango da Jubiladuen tabernan eta Unai Iturriaga eta Andoni Egaña bertsolari ezagunek kantauko dabez bertsoak. Afariak 25 euroko prezioa dauka eta izena aurretik emon behar da Jubiladuen tabernan.

## KOTXEPIN

### Gorbeia eta Gabonetako ipuin, kantu eta kondairak Lemoako Kotxepinen

#### Erredakzioa

Kotxepin Kultur Etxean, ipuin eta kondairak jasoten dituen ikuskizun bi ikusteko aukerea egongo da hamabostaldi honetan. Hilaren 11n, 18:30ean, *Olentzero*, *Mari Domingi* eta *euskal ipuinak* Ainhoa Etxebarriaren ipuin kontaketeta; eta 13an, 19:30ean, Gontzal Mendibilek eta Iñaki Garcia Uribek *Kontuak eta kantuak Gorbeian*, Gorbeia abesti eta kondairen kantaldia eskainiko dabe.

Kantaldiak 8 kantu batzean ditu, "danak Gorbeia eta Arratiaren inguruari buruzkoak. Batzuk antxinakoak eta egokitutakoak dira, beste batzuk sortutakoak eta barriak" azaldu deutso Beñat Mendibilek. *Ama Gorbeia*, *Gorbeia haizea* eta *Neure txiki polita* dira entzun ahal izango diran kantuetako batzuk.

Garcia Uribek barriz, Gorbeia buruzko ipuinak, istorioak, kondairak eta mitoak kontauko ditu. Lemoakoa, ikuskizun honen 38. emondia izango da.

## DUNBA

### Gau Baltza Zubialde eskolan

Aurten be, Zubialde eskolan Gau Baltza ospatu eben urri bigarrenaren 31n.

#### Zeberiko Zubialde eskolako 6. mailako ikasleak

Urri bigarrenaren 31n ospatutako Gau Baltzean, ikasleek hainbat ekintza egin ebezan. Goizean, eskolara heldu bezain laster, ikasleek aurretik etetik ekarritako kalabaza hustutakoak eskolea apainduta egoala ikusi eben. Horregaz batera, ikasleek eskolara sartzeraoan sustuak jaso ebezan irakasleen partetik.

Egunean zehar, hainbat ekintza egin ebezan, adibidez: bildurrezko kontakizunak entzun eskolako liburutegian, bildurrezko pelikulak ikusi, Gau Baltzari lotutako eskulanak egin ebezan; eta horreen artean, hirugarren

ziklokoek, kalabaza bizkotxo egin eben.

Guk bizkotxo hori egin genduan, bizkotxo zelatan egiten dan azalduko deusuegu. Horretarako, errezeta egiteko osogaiak, tresnak eta jarraibideak aurkeztuko deusueguz.

Kalabaza bizkotxo egiteko jarraibideak hurrengoak dira:

Hasteko, kalabazea 5 minutuz egosi eta horren ostean, hotzitzen itxi. Ondoren, oreka egiteko, ontzi baten 3 arrautza, azukrea eta gatz apur bat bota eta irabiagailuagaz nahastu oreka loditu arte. Pausu hori emon eta gero, orioa, bainila esentzia eta kalabaza ontzira gehitu eta dana nahas-



tu. Hori eginda, ontzi baten uruna eta legamia nahastu.

Prozesu hori egin ostean, moldeak gurinagaz margoztu oreka moldean ez pegetako. Oreka moldera bota eta aurretiaz 170º gradutara berotuta egon dan labera sartu. Bizkotxoak 45 minutuz egon behar da labean. Denpora hori pasau ostean, zotz bat sartu behar da jakiteko oreka eginda dagoan edo ez. Zotza heze bada-

go ez dago eginda, baina lehor badago, horrek esan gura dau bizkotxo prest dagoala.

Atera ostean, hotzitzen itxi eta geroago moldetik atera. On egin!

#### Osogaiak:

- 250 g azukre
- 250 g urun
- 250 g kalabaza
- 150 ml ekilore-orio
- 3 arrautza



- Bainila esentzia koilarakada bat
- Gatz apur bat
- Legamia sobre bat

#### Materiala edo tresnak:

- Ontzi handi bat
- Irabiagailua
- Moldea
- Neurgailua
- Brotxa
- Balantzea





## AGENDA

**ABENDUAK 2  
ARANTZAZU**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**ARRATIA**

Hilaren 13an Berbalagunek antolatutako *Tuppersex* tailerrerako izen-emotea zabalik [arratia\\_berba@aek.eus](mailto:arratia_berba@aek.eus) helbidean.

Abenduaren 30era arte, AEK-ko Berbalagun egitasmoak antolatuta, Mikroipuiri Txapelketarako lanak bialdu daitezke [arratia\\_berba@aek.eus](mailto:arratia_berba@aek.eus) helbidera.

**AREATZA**

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00etatik 21:00etara eta astegoietan, 09:00etatik 21:00etara.

Bonodenda kanpaina urtailaren 19ra arte. Bonuak Gauzak dendan salgai.

**ARTEA**

Hilaren 5era arte, hilaren 11 eta 12an izango dan *Domotika* tailerrerako izen-emotea udaletxean. Prezioa: 10 euro.

**BEDIA**

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela personalizaua da eta liburutegian jaso behar da.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**DIMA**

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

**IGORRE**

08:00etatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era. Publikoari arretea: astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

Abenduaren 16ra arte, Igorreko Kultur Etxeko bazkide izateko kanpaina.

Abenduaren 5era arte, *Mina indar bihurtu* erakusketea Kultur Etxeko Erakusketa gelan.

Hilaren 15era arte emon daiteke izena Udal ikastaroetarako Kultur Etxean. Ikastaroak: *Akrobaziak Haizea* (16 urtetik gorakoentzat) *Akrobaziak Lurra* (6 urtetik 9 urtera), *Akrobaziak Ura* (10 urtetik 16 urtera), *Laborategia*, *Txi-Kung*, *Yoga*, *Hipopresiboak*, *Literatura* eta *Arte plastikoaren eta sormenaren mintegia*.

**LEMOA**

08:00etatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**UBIDE**

08:00etatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

**ZEANURI**

Lekuak bete arte, hilaren 13an izango dan bertso-afarirako izen-emotea Jubiladuen tabernan. Prezioa: 25 euro.

19:00etan, Ipiñaburu eta Ipiñako auzokoakaz bilera aurrekontuetarako txokoa. Udalak antolatuta.

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00etatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

**ZEBERIO**

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

**ABENDUAK 3  
ARANTZAZU**

18:00etan, euskerearen aldeko manifestua irakurri, Argazki Lehiaketako sari banaketea, kantua eta topa txokolateagaz; 19:00etan, Tor magoaren *Hator magiara* ikuskizuna Herriko Tabernan.

**AREATZA**

19:00etan, Euskerea sustatzeko plan estrategikoko parte-hartze saioa udaletxean. Ostean kopaua egongo da bertaratutakoentzat.

**ARTEA**

19:00etan, Arratiako herrietan egindako mural zatiak batu, danen artean murala osotuteko; ostean, merienda. Plazan. Euskerearen Eguna. Zastaparrak-ek antolatuta.

**BEDIA**

18:00etan, Igone Etxebarriaren *Bedian jai giroan herriginen* liburuaren aurkezpena liburutegian; 19:00etan, gilda eta ardao dastaketea trikitilariakaz girota, plazan. Euskerearen Eguna.

**DIMA**

17:00etan, plazan alkartu eta aurkezpena; ostean herritik kalejira frontoi txikiraino ibilbidean zehar herriko alkarteek ekintza desbardinak egingo dabez; 18:00etan, frontoi txikian Euskerearen Eguneko ekitaldia eta Euskaraldiko Hamaikakoaren aurkezpena. Ostean, txokolatea.

**IGORRE**

17:30ean, Euskerearen gala. Inbiu

egunean grabautako bideoa, musikea, bertsoak eta jantzak Lasarte Aretoan. Ostean, kopaua Kultur Etxeko hallean.

**LEMOA**

18:00etan, Euskerearen Eguneko ekitaldia: Egunean Behin lehiaketako sari banaketea, euskera ikasleei omenaldia, muralaren bideo aurkezpena, Asier Kidam magoa eta txokolatea Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEANURI**

19:00etan, Tartean Teatroaren bakarrizketak *Txizatoki bat eszenalekuan* eta *Hamalau*. Patxo Telleria eta Mikel Martinez. Kultur Etxean. Euskerearen Eguna.

**ABENDUAK 4  
AREATZA**

18:30ean, aurrekontuetarako auzokoakaz batzarra udaletxeko pleno aretoan. Udalak antolatuta.

**ZEANURI**

18:00etan, *Indarkeria gineko-obstetrikoko ezagutu eta identifikatu* berbaldia udaletxeko Pleno Aretoan.

19:00etan, Alzustako auzokoakaz bilera aurrekontuetarako txokoa. Udalak antolatuta.

**ABENDUAK 5  
ZEANURI**

18:00etan, Eleizondoko auzokoakaz bilera aurrekontuetarako txokoa; 19:30ean, Asterrikoakaz. Udalak antolatuta.

**ABENDUAK 6  
IGORRE**

19:30ean, zinea, *Joker: Folie à Deux*.

**ABENDUAK 7  
ARRATIA**

Autobusa Durangoko azokako kontzertuetatik etxera bueltetako.



## Musika tresna tradizionalak eta mito bilakatu diran musikariak erakusketa baten

Igorreko Kultur Etxeko erakusketa gelak *Bizkaiko musikari tradizionalak* izeneko erakusketea hartuko dau abenduaren 14tik urtialeko 7ra arte.

Bizkaiko musika tradizionalaren historia markau daben mitoak omentzen ditu erakusketa honek -Fasio Arandia, Leon Bilbao, Silvestre Elezkano "Txilibrin", Juan Aiesta, Mariano Barrenetxea, Maurizia Aldeiturriaga, Romualda Zuloaga, Felisa Arribalzaga, Patxi Bilbao, Juan Bilbao, Rufino Arrola, Balbino Ojanguren, Boni Fernández, Alejandro Aldekoa eta José Luis Etxebarria- eta herri musikearen funtsezko bost instrumentu ditu ardatz: txistua, soinu-txikia edo trikitixea, panderoa, albokea eta dultzaina. Euskal musika tradizionalaren bihotzera egindako bidaia da erakusketea, musikari garrantzitsuenen nondik norakoen barri emon eta Bizkaiko musika tradizionalan izan daben eragina erakusten dauana.

03:00etan eta 05:00etan, Lemoako tren geltokitik Dima eta Zeanurira arte.

**IGORRE**

Ziklo-kroseko Txiki Kopa. 14:30ean, zirkuitua berrikustea; 14:45ean, Benjamin mailako lasterketea, neskak eta mutilak; 15:05ean, Alebin mailako lasterketea, neska eta mutilak; 15:30ean, Infantil mailako lasterketea, neskak eta mutilak.

**ZEANURI**

12:30ean, Plazako herritarraz bilera aurrekontuetarako Kultur Etxean. Udalak antolatuta.

**ABENDUAK 8  
IGORRE**

Igorreko Ziklo-krosa. 09:00etan, Master kategorietako gizonen lasterketak; 10:00etan, Kadeteak, andrak eta gizonak eta Master andrazkoak; 10:45ean, Master eta Kadete kategorietako sari banaketea; 11:00etan, Junior andrak eta gizonak; 12:00etan, Elite eta Sub23 andrak; 13:15ean, Elite eta Sub23 gizonak; 14:30ean, sari banaketea Junior eta Elite kategoriakoak.

17:00etan, zinea, *Guardianes en la ópera*; 19:30ean, *La infiltrada*.

**ABENDUAK 9  
BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 18ra arte, urtailaren 25etik 27ra egingo dan eski urtekerarako izen-emotea liburutegian.

**ABENDUAK 10  
ARTEA**

17:30etik 19:00etara, Mikel Deuna Jubiladu eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta, *Domotika* tailerra Kultur Etxean.

**BEDIA**

16:30etik 19:30era, hilaren 19ra arte, Gabonetako Txartel Lehiaketan parte hartu daben marrazkien erakusketea liburutegian.

**IGORRE**

Enplegu jardunaldia. 10:00etan, jardunaldiaren irekierea, Beharbiderearen aurkezpena; 10:30ean, enpresen zirkuitua; 13:30ean, ekitaldiaren amaiera, kalidadezko eta tokiko enplegu baterako ondorioak; 15:00etan, enpresei eta lan-eskaintzen buruzko informazioa eta hautagaitza aurkezteko laguntzea. Lasarte Aretoan.

**ABENDUAK 11  
BEDIA**

19:00etan, Erregeen Kabalgatan parte hartzeako batzarra udaletxean.

**LEMOA**

18:30ean, Ainhoa Etxebarriaren umeentzako ipuin kontaketea *Olentzero*, *Mari Domingi* eta *euskal ipuinak* Kotxepin Kultur Etxean.

**ABENDUAK 12  
ARTEA**

17:30etik 19:00etara, Mikel Deuna Jubiladu eta Pentsionisten Elkarteak antolatuta, *Domotika* tailerra Kultur Etxean.

**IGORRE**

20:00etan, *Miñan* antzezlan Lasarte Aretoan.

**ABENDUAK 13  
DIMA**

16:30etik 17:30era, Txumluxueta

Pelota Klubak antolatuta, 2016tik 2019ra jaiotako umeentzako eskupelota saioa plazako frontoian.

**IGORRE**

16:00etatik 20:00etara, Elkartasun Begiradak alkarteak antolatuta, V. Azoka Solidarioa Lehendakari Agirre kalean, markesinaren atzeko arkupeetan.

18:00etan, Berbalagunek antolatuta, *Tuppersex* tailerra Kiñu Gaztetxean.

19:00etan, Olga Ortuzarren omenezko esku pelota partiduak. 1. partidua: Lau eta Erdikoa, Izkander Torralba vs Beñat Zearra; 2. partidua: Bengoetxea-Agirre vs Mikel Gofñi-Cimadevilla. Frontoi barruan, pintxopotea, txosnea eta musikea egongo dira.



Axular Herriko Tabernak eta Ernaik antolatuta, Elkartasun jai. 20:00etan, Amaieur eta Haritz bikotearen kontzertu akustikoa; 22:00etan, Mangualen binilo pintxadea eta 21:00etatik 23:00etara, afariak: hanburgesak. Axular Herriko Tabernan.

**LEMOA**

19:30ean, *Kontuak eta kantuak Gorbeian* Gontzal Mendibil eta Iñaki Garcia Uribereren Gorbeiko abesti eta kondariren kantaldia Kotxepin Kultur Etxean.

**ZEANURI**

21:30ean, bertso-afaria Jubiladuen tabernan. Bertsolariak: Unai Iturriaga eta Andoni Egaña.

**ABENDUAK 14  
AREATZA**

10:30etik 14:30era, nekazaritzako elikagaien produktuak eta artisautza azokea plazan (eguraldi txarra egin ezker eskolako aterpean egingo da azokea).

21:00etan, Javier Valdes bakarariaren kontzertua The Quiet Corner tabernan.

**IGORRE**

19:30ean, Luis Iruarizaga Abesbatzaren kontzertua Lasarte Aretoan.

**ABENDUAK 15  
DIMA**

12:30ean, Iratxe Etxebarriaren *7.300 miligramo eszitalopram* liburuaren aurkezpena Antzasti Euskaldunon Etxea Museon.

**IGORRE**

17:00etan, zinea, *Robot salvaje*; 19:30ean, *Marco*.

**ZEBERIO**

Austarri Mendi Taldeak antolatuta, Deba-Mutriku-Ondarroa ibilaldia.



# KOMIKIA

Kailo Ren



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### GARAJE PARTZELEA ALOKAIRUAN

Garaje partzela bat alokatzen da Igorren, anbulategi atzeko parkean. Interesatuak 629 307 400 telefonora deitu.

#### YOGA ETA COACHING

Gorputza indartu eta flexibilizatu, zure amesetako etorkizuna sortu, zure barne bakea topatu eta bizitza orekatu. *Online* klaseak. Kontakua: 672 873 452 (Nerea).

#### BASERRIA SALTZEAN DA

Zeberion 750 m<sup>2</sup>ko baserrietxea salduen da inguruan landa zabalagaz. Interesdunek deitu 609 457 016 telefonora.

#### LONJEA SALDU EDO ALOKATZEN DA

Lonjea saldu edo alokatzen dot Igorreko Lehendakari Agirre 9 zenbakian. Interesdunek 674 607 474 telefonora deitu.

#### LOGELA BILA

Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gixienez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

### LANA

#### FRANTSESEKO KLASEAK ONLINE

Adin eta maila guztiak. Bakarka zein

taldeka. Frantses filologian graduatua.

Interesdunek deitu: 610 374 854 (Nerea).

#### ALEMAN ESKOLAK EMOTEN DIRA

Esperientzia luzeko alemaniarrik adin eta maila guztiako eskolak emoten ditu, *online* eta aurrez aurre. Interesdunek deitu: 610 863 369.

#### UMEAK JAGOTEN DODAZ

Esperientziadun andra euskalduna, umeak zaintzeako prest dago. Interesautak egotekotan, deitu 686 341 677 telefonora.

#### KLASEAK EMOTEN DODAZ

Lehen Hezkuntzako gradua PT aitamagaz ikasi dot. Lehen Hezkuntzako ikasleei edozein arlotan klase partikularrak emoten deutesdaz. Interesdunek deitu edo idatzi 693 064 726 telefonora.

#### IRAKASLE BILA

Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bateri matematika emongo deusan irakaslea topetan nabil. Interesdunek deitu edo bialdu mezua 658 727 613 telefonora.

**Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

**1** Iratxe Etxebarriak idatzitako **7.300 miligramo eszitalopram** liburua.

**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera **Miñan** antzezlanerako.

Iñigo Aranbarri (Lekeitio)  
Mari Eli Olabarri (Areatza)

Errota Fundazioa (Arratia)  
Joko Alai alkartea (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 22 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROSER  
-  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
-  
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: **ZUZENBIDE**  
AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
Tlf. 94-673-70-87  
609-79-40-54

**begitu**  
**eus**



# OPARI BONUAK

— 2024 —

OPARITU ONDOIZATEA

*Sartu gure webgunean, aukeratu  
opari bonua, inprimidu eta listo!*

ZIRKUITU  
TERMALAK

MASAJEAK

BIKOTE-KAPRITXOAK

ERRITUAL NATURALAK

EGONALDIAK

HOTELEAN

HIDROTERAPIA

ESTETIKA & KOSMETIKA

*18€tik aurrera*

[hotelbalnearioareatza.com](http://hotelbalnearioareatza.com)

[hotelbalneariorduna.com](http://hotelbalneariorduna.com)

